

MAIER S.COOP III. DISEINU-LEHIAKETAREN OINARRIAK

0) DEIALDIA

Maier S.Coop enpresak nazioarteko izaera duen eta autoen barnealdearen diseinuan oinarritzen den “Maier S. Coop III. Diseinu-Lehiaketaren” deialdia egiten du.

1) LEHIAKETAREN XEDEA

Lehiaketaren xedea da autoen barnealderako (zehazkiago ateen barnealderako) ideia berriak eskaintzen dituzten proiektuak saritzea. Ideia berri horiek oinarritzat hartu beharko dituzte atek ireki eta ixteko modu berritzaileak eta bestelako erabilerak. Aurkezten diren produktu berriek hainbat helburu bete behar dituzte, hala nola, erabiltzailearen erosotasuna bilatu, aurretik dauden sistemak erraztu, zerbitzu berriak integratu, gidariaren eta beste bidaiariaren segurtasuna hobetu, dekorazio teknologia berriekin autoen barnealdeko estetika berri edota ingurumena zaintzeko hobekuntzak eskaini.

Hauexek dira hobetu beharreko produktuak:

- Atea irekitzeko barnealdeko eskulekua
- Ate-panelaren heldulekua
- Bozgorailuen sareta.
- Ate-panelaren edergarriak

2) GAIA

Gaia librea da baina lehiaketaren oinarrietako lehenengo puntuan deskribatzen denarekin lotuta egon behar du. Adibidez, proposamenak ondorengo ideietan oinarritu daitezke:

- Elementuak barneratzea eta kostu murrizketa: elementuak barneratzen dituzten ideiak eta egungo egituren kostua murrizteko helburua dutenak
- Autoaren barnealdearen garbitasuna: Haien ezaugarri teknikoak direla eta, autoaren barnealdea garbi edukitzeko egokienak diren produktuak (materialak, edergarriak)
- Zirrara: Erabiltzailearen zirrara eragiten duten produktuak (erabiltzailearen ukimena, ikusmena edota usaimenari erantzuten dioten produktuak)
- Ergonomia (erabiltzaileari egokitu): Atearen esparruan, gidariaren eta beste bidaiariaren ergonomia hobetzen duten produktuak.
- Estetika eta “customizazioa”: Atean barneratzeko teknologia berriak. Teknologia berri horiek aukera estetiko berriak eta autoa pertsonalizatzeko aukera eskainiko dute.
- Barnealdeko argitasuna edergarri moduan: Argiaren bitartez, zuzena edo zeharkakoa, dekorazio berriak sortzen dituzten produktuak, materialak edota estaldurak.
- Segurtasuna: Jada dauden irtenbideez gain, istripu batek gidari eta bidaiariengan eragin ditzaken kalteak antzeman, jakinarazi, saihestu eta murriztuko dituzten teknika berriak.
- Ingurumena: Ingurumenarekin lotuta dauden kontzeptuak barneratzen dituzten produktuak

3) PARTE-HARTZAILEAK

Edozein pertsona fisikok edota erakunde juridikok parte hartu dezake.

Ondoren aipatzen direnek parte hartu dezakete, adibidez:

- Diseinatzaileak eta diseinu-enpresak.
- Ikasleak eta Unibertsitateak.
- Diseinuarekin lotuta dauden erakunde publiko edo pribatuak.
- Ikerketa eta garapen zentroak
- Automobilgintzako enpresak
- Beste batzuk.

4) PARTE-HARTZEKO BALDINTZAK ETA PROIEKTUAK AURKEZTEKO ARAUAK

Parte-hartzaile bakoitzak 5 proiektu aurkeztu ditzake gehienez ere. Proiektuak banaka edo taldeka aurkeztu daitezke.

Proiektuak formatu digitalean bidali behar dira ondorengo helbidera:

automotive_innovation@grupo.maier.es

Proiektuek bete behar dituzten baldintzak:

1) JPG formatuko, 1280x1024 tamainadun eta 72 dpi-ra bitarteko bereizmena duten 3 panel horizontal aurkeztuko dira gehienez ere. Panel bakoitzak megabyte bateko tamaina izango du gehienez ere. Panelean proposamena behar bezala ulertzeko planoak, atalak eta perspektibak jaso beharko dira. Paneletan ez da egilea edota egileak identifikatuko dituen elementurik agertuko (izena, inisialak, sinadura, etab.) Paneletako azalpenak (egonez gero) ingelesez idatzi beharko dira.

2) Gehienez ere ondorengo informazioa jasoko duen doc. formatuko orrialde bat (Arial 10). Testua ingelesez, frantsesez, alemaniarrez, gazteleraz edota euskaraz idatzi daiteke:

- Izen-abizenak.
- Helbidea.
- Harremanetarako telefonoa
- Posta elektronikoa
- Lanbidea (parte-hartzailea ikaslea bada, ikasketak adierazi)
- Parte-hartzaileak lehiaketaren berri nola izan duen azaldu behar du (mailing-a, prentsa, webgunea, beste batzuk)
- Proiektuaren abstract-a. Bertan, proposamenaren xedea, funtzionamendua, hobekuntza, berrikuntza eta abar azalduko da proiektua behar bezala ulertu dadin.

5) PARTE-HARTZAILEAK ESKAINI BEHARREKO BERMEAK

Parte-hartzaileak honako hau ziurtatu eta bermatu behar dio Maier S.Coop-i:

- Proiektua originala dela eta ez dela beste lehiaketetan edota forotan aurkeztu (ahoz edota idatziz).

- Proiektuaren egile bakarra dela (proiektua talde edo enpresa batek egin badu, egileak eskusiboak direla ziurtatu eta bermatu beharko da). Era berean, parte-hartzaileak ziurtatu behar du proiektuak ez dituela, zuzenean edota zeharka, hirugarrenen eskubideak urratzen.

- Bera dela proiektuaren jabetza industrial eta intelektualaren eskubideen legezko titular bakarra proiektua lehiaketa honetara aurkezteko unean (proiektua talde edo enpresa batek egin badu ziurtatu beharko da horiek direla titular bakarrak).

- Parte-hartzailea pertsona fisikoa bada, bermatu behar du proiektua ez dela besteren konturako lan-jarduera edota zerbitzupean egin.

6) PROIEKTUAK AURKEZTEKO EPEA

Proiektuak aurkezteko azken eguna: 2009ko apirilak 30.

7) EPAIMAHAIA

Epaimahaia diseinu-zentroetako ordezkariak, automobilgintza-enpresetakoek, erakunde publikoetakoek eta diseinatzaileek osatuko dute.

Epaimahaiak hautatuko ditu saridunak.

Epaimahaiak antolatzaileek izendatutako batzorde tekniko baten aholkularitza jaso dezake. Batzorde horrek hautatu ditu lehiaketaren oinarrietan jasotzen diren baldintzak betetzen dituzten proposamenak.

Hauek izango dira oro har epaimahaiak balioetsiko dituen irizpideak:

- Berrikuntza erabilerari eta funtzioari dagokionez.
- Asmarena.
- Auto mota ezberdinetan barneratzeko gaitasuna.
- Bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa.

Behin-betiko epaimahaikideen izenak proiektuak aurkezteko azken eguna baino lehen jakinaraziko dira.

Saridunak 2009ko ekainean ezagutaraziko dira. Jakinarazpena parte-hartzaile bakoitzak eskaintako posta elektronikora bidaliko da.

8) SARIAK

Bi sari emango dira:

Lehen saria: Oroigarria eta 6.000 euro

Bigarren saria: Oroigarria eta 3.000 euro

Proiektu saridunak merkaturatuz gero, Maier S. Coop enpresak salmenta-partaidetzaren bat emateko aukera izango du (ikus oinarrien 10. puntua)

Lehiaketa esleitu gabe utziko da epaimahaiaren ustez aurkeztutako lanek ez badituzte saridun izateko baldintzak betetzen.

Epaimahaiaren erabakia apelaezina da.

9) SARI BANAKETA

Sari banaketa 2009ko ekainean egingo da, Maier S. Coop-en (Gernika-Bizkaia).

Sari banaketaren ondoren, saridunek Maier S. Coop-en ekoizpen-instalazioak bisitatuko dituzte.

10) JABETZA INDUSTRIALA ETA INTELEKTUALAREN ESKUBIDEAK

Parte-hartzaileek baimena emango diote Maier S. Coop-i lehiaketan aurkeztutako proiektuak argitaratu, ezagutzera eman, aurkeztu edota zabaltzeko (ahoz, idatziz edo modu grafikoan) betiere proiektuaren egilea aipatzen bada.

Saridunek lizentzia edo baimena (esklusiboa, mugagabea eta herrialde guztietan erabilgarria) emango diote Maier S. Coop-i saritutako diseinuak eskaintzen duen mekanismo osagarria edota irtenbidea erabili, ekoiztu eta/edo merkaturatzeko. Era berean, Maier S. Coop-ek eskubidea izango du lizentzia hori hirugarren bati emateko edota azpi-lizentziak eskaintzeko.

Lizentziaren prezioa: saritutako mekanismo edota osagarrietako diseinua edota jabetza industrial edo intelektualaren eskubideak dituzten produktuen salmenta guztien % 1eko kanona. Produktu horiek Maier Taldeko enpresaren batek industrializatuko ditu. Kanon hori hiru hilero ordainduko da. Horretarako, interesdunak Maier S. Coop-ek emango dion salmenta-zerrendan oinarritutako faktura aurkeztu beharko du alde zurretik.

Lehiakideek eskubidea daukate emandako lizentzia edota baimena baliogabetzeko 4 urteko epean mekanismoa edo osagarria ez bada industrializatu.

Edonola ere, lizentzia edo baimena ematea sari banaketa baino lehen gauzatuko da.

11) ARGIBIDE GEHIAGO

Argibide gehiago nahi izanez gero, idatzi ondorengo helbidera:

automotive_innovation@grupo.maier.es

12) DATU PERTSONALEN ERABILERA

Maier S. Coop-ek lehiaketa honetarako soilik erabiliko ditu parte-hartzaileen datu pertsonalak, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak dioenari jarraiki.

Parte-hartzaileak eskubidea dauka bere datuetan sartzeko eta horiek zuzendu edota ezeztatzeko. Horretarako parte-hartzaileak eskutitz bat bidaliko du ondorengo helbidera:

[MAIER TECHNOLOGY CENTRE S. COOP.](#)



51 Posta Kutxatila
48300 Gernika - Bizkaia – Spain

Eskutitzean Lehiaketa erreferentzia idatzi behar da.

13) LEGE APLIKAGARRIA

Lehiaketa hau, eta bereziki jabetza industrialak eta intelektualaren eskubideak Maier S. Coop-en alde eskualdatzea, lege espainiarrari jarraiki gauzatuko da.

14) GATAZKAK KONPONTZEKO PROZEDURA

Lehiaketa edota oinarri hauen inguruan parte-hartzaileen eta Maier S. Coop-en artean gatazkarik sortuz gero, Gernikako Epaitegi eta Auzitegiek (Bizkaia) izango dute gatazka hori konpontzeko ardura.

15) OINARRIEN ONARPENA

Lehiaketa honetan parte hartzen duen orok oinarri hauek bete beharko ditu.

Argibide gehiagorako: www.maierdesign.es

[Lehiaketaren Batzorde Antolatzailea](#)